

Segurtasunerako oinarrizko aholkuak

Eman lehentasuna segurtasunari



SARBIDE GAKOA BURUZ IKASI

Ez eman inoiz sartzeko gakoa, eragiketak egiteko gakoa edota txartelaren gakoak. Aldatu aldian-aldian sarbide-gakoa eta ez erabili datu ezagunik, esateko baterako, jaiotze-data.



EZ ERABILI ORDENAGAILU PUBLIKORIK

Ez sartu Online Bankan ordenagailu edo wifi-sare publikoetatik.



EDUKI SOFTWAREA EGUNERATUTA

Instalatu antibirusa ordenagailuan eta mugikorrean eta pasatu aldian-aldian. Horrez gain, eduki softwarea eguneratuta: Sistema eragilea, nabigatzailea, antibirusak... eta instalatu aplikazio ofizialak soilik Google Play-tik eta App Store-tik.



ARRETA JARRI MEZUEI

Egiaztatu Posta Elektronikoz, Whatsapp-ez edo SMS bidez jasotako mezuen jatorri eta fidagarritasuna eta irakurri arretaz SMSak, baieztatuz haren xehetasunak egiten ari zaren eragiketari dagozkiola.



KONTROLATU ZURE MUGIMENDUAK

Aktibatu telefono mugikorreko jakinarazpenak, ikusi aldizka kontu zein txartelen egoera eta ezarri mugak transferentziak egiteko eta txartelak erabiltzeko. Mugimendu susmagarriren bat detektatu baduzu, mugikorra galdu bazaizu edo lapurtzen badizute, badaezpada ere, blokea itzazu txartelak.



EZ FIDATU USTEKABEKO DEI EDO MEZUEKIN

Ez sartu inoiz gure zerbitzura posta elektronikoaren bidezko mezuetako esteken bidez, ez ireki fitxategi erantsi susmagaririk eta ez fidatu ustekabeko deiez edo mezuez.